



2022ko Añorga Txikiko jaiak.  AÑORGA TXIKIKO JAI BATZORDEA

Añorga Txikiko jaiak, udako azken txanpan murgiltzeko

«Jai motzak baina biziak» dira Añorga Txikikoak, Silvia Osés jai batzordeko kideak azaldu duenez. Urteroko legez, haur, gazte, heldu zein zaharrentzako jarduerekin datoz, baita berritasun batzuekin ere.

✦ Beñat Parra Rodriguez

Bai, uda amaitzen ari da, eta, horrekin batera, udako jaiak ere bai, baina ez larritu, oraindik ospatzeko baitaude Donostiako hainbat auzotako festak. Horietako batzuk dira Añorga Txikiko jaiak, egun bat eta erdiko jai laburrak, baina aspertzeko tarterik izango ez dutenak.

Hurrengo ostiral arratsaldean

hasiko dira, txupinazoarekin, eta haurrentzako jarduerak, barreneak, mozzorro poteoak eta Arte DJ-aren emanaldiak beteko dute arratsaldea, larunbatera motorrak ondo berotuta heltzeko. Izan ere, jai batzordeko kide Silvia Osés nabarmendu du larunbata dela egun osoan zehar jarduerak antolatzen dituzten eguna: «Saiatzen gara haur, gazte zein hel-

duek gozatzeko moduko jarduerak antolatzen egun horretan. Horrela, bazkaria polita izaten da, denak elkartzen baikara, eta ondorengo bingoak arrakasta handia izan ohi du».

Era berean, jaiak oso parte hartzaileak direla nabarmendu du Osés: «Kuadrilla bakoitzak jarduera bat edo bat baino gehiago antolatzeko ardura hartzen du: pilota eskolakoek barrena, gazteek gaueko gauzak, eta abar. Bagaude talde txiki bat dena gidatzen duguna, baina, gero, ondo moldatzen gara denon artean gauzak antolatzeko, kuadrillaz kuadrilla. Horrela, azkenean, lortzen dugu jaiak herrikoiak izatea eta adin guztietako pertsonentzako jaiak izatea».

Mojitoak berritasun

Berritasun gisa, larunbateko bazkariaren eta bingo arrakastatsua ondo ondo, bazkaria jaisteko, mojitoak egingo dituzte frontoian, latin zumba saioaz gozatzen duten bitartean. «Jai txikiak direnez gureak, gauza asko egin behar ditugu dirua lortzeko, eta,

aurten, pentsatu dugu jaien aldeko mojitoak egitea. Horrekin eta latin zumbarekin, uste dugu giro aparta sortuko dela frontoian», azaldu du Osese.

Bestalde, bigarren berritasun batekin ere badatoz Añorga Txikiko jaiak, haurren bizkotxo lehiaketa berreskuratu baitute: «Ikastolako seigarren mailako haurrek antolatuta, gainera. Haurrek antolatu dute, haurrentzat. Horrela, txikitatik hasten dira jaien antolaketan parte hartzen eta jaiakin inplikatzeko», nabarmendu du jai batzordekoak.

Berritasun gisa, bazkaria jaisteko, mojitoak egingo dituzte frontoian, latin zumba saioaz gozaten duten bitartean

Tortillak eta beste

Berritasunak berritasun, betiko jarduera arrakastatsuak ez dira faltatuko aurten Añorga Txikin, Osese azaldu duenez: «Hala nola, sardina eta sagardo dastaketa. Bestalde, tortilla patata txapelketa nabarmendu behar da, tortilla asko eta asko aurkezten baitira beti, 50 inguru, esango nuke. Kontuan edukita Añorga auzo txikia dela eta Añorga Txiki are txikiagoa, asko da. Sekulako lehia polita eta giro onekoa sortzen da. Saria, gainera, bordatutako mantala bat da, eta irabazlea, ondoren, adarra jotzen ibiltzen da; dibertigarria da».

Bestalde, jaiak gaurik gabe ez direlako jai, gauean ere antolatu dituzte jarduerak: erromeria bat eta DJ saio batzuk izango dituzte, hain zuzen ere. Ildo horretatik, eskaera bat egin die Osese añorgatarrei: «Pazientzia pixka bat edukitzeko, gauean zarata egongo dela auzoan, baina urtean behin soilik dela eta auzoari bizitza ematen diotela jaiak». Eta, beste eskaera bat ere egin du, herri honetako jai batzorde orok egin ohi duena: «Eguraldiak errespetatu gaitzala, mesedez!» ●



OSTIRALA 6

17:30 • Auzo elkarteko lokalean

Txupinazoa.

17:45 • Ikastolako frontoian

Haur jolasak.

18:30 • Ikastolako frontoian

Txokolate jana eta III. Haurren Bizkotxo Txapelketa.

19:00 • Frontoian

Barrene herrikoia.

19:45 • Atotxa Erreka elkartetik

Mozorro poteo herrikoia.

Gaia: Pertsonaia historikoak.

22:30 • Atotxa Erreka elkartean

Mus txapelketa.

23:00 • Frontoian

Arte DJ-a.

LARUNBATA 7

11:00 • Ikastolako frontoian

Haur jolasak.

12:00

Sagardo eta sardina dastaketa.

13:00

Patata tortilla txapelketa.

14:00

Sari banaketa.

14:30 • Frontoian

Paella jate herrikoia (aldez aurretik txartela erositako).

15:30

Jaien aldeko bingoa.

16:30

Latin zumba Nahia eta Evarekin eta jaien aldeko mojitoak.

16:00-19:00 • Parke zaharrean

Puzgarriak.

18:30

Añorgako erraldoi eta buruhandiak.

20:00

Poteo herrikoia musikarroarekin.

23:00 • Frontoian

Erromeria, Olgetan taldearekin.

01:30 • Frontoian

ZKN Brothers DJ-a.

IGANDEA 8

Denok garbitzera.